

**I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA****ARABAKO BATZAR NAGUSIAK**

**8/2025 Foru Araua, uztailaren 9koa, 1/2025 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, ekainaren 17koa, baliozkotzeko dena, onespina emateko urtarrilaren 19ko 12/1993 eta otsailaren 16ko 1/1999 foru dekretu arauemaileak aldatzeari**

Jakinarazten dut Arabako Batzar Nagusiek 2025eko uztailaren 9ko osoko bilkuran onetsi dutela, eta nik aldarrikatzen eta agintzen dut argitara dadila "8/2025 Foru Araua, uztailaren 9koa, 1/2025 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, ekainaren 17koa, baliozkotzeko dena, onespina emateko urtarrilaren 19ko 12/1993 eta otsailaren 16ko 1/1999 foru dekretu arauemaileak aldatzeari" aplikagarria zaien herritar guztiek, partikularrek eta agintariek bete eta betearaz dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko uztailaren 9a

*Diputatu nagusia*

*RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE*

**8/2025 FORU ARAUA, UZTAILAREN 9KOA, 1/2025 ZERGA PREMIAZKO ARAUGINTZAKO DEKRETUA, EKAINAREN 17KOA, BALIOZKOTZEKO DENA, ONESPENA EMATEKO URTARRILAREN 19KO 12/1993 ETA OTSAILAREN 16KO 1/1999 FORU DEKRETU ARAUEMAILEAK ALDATZEARI**

**HITZAURREA**

Otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak –Arabako Zerga Orokorrari buruzkoa- 8. artikuluan baimendutakoarekin bat etorritik, Foru Gobernu Kontseiluak onartu du, presazko arrazoiak direla-eta, ekainaren 17ko 1/2025 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, onespina emateko urtarrilaren 19ko 12/1993 eta otsailaren 16ko 1/1999 foru dekretu arauemaileak aldatzeari.

Aipaturiko 8. artikulua 2. apartatuan ezartzen du, xedapen orokor horiek Batzar Nagusiek baliozkotu edo indargabetu behar dutela indarrean dauden arauen arabera.

Tramite hori eginda, Batzar Nagusietako osoko bilkurak baliozkotze akordioa hartuta eta 2013ko apirilaren 22ko Arabako Batzar Nagusietako funtzionamendu araudia aldatzeko 17/2013 Foru Arauaren 147. artikulua arabera, bidezkoa da aipatutako zerga premiazko araugintzako dekretua baliozkotzeko foru araua ematea.

**ARTIKULU BAKARRA.** Baliozkotuta geratu da ekainaren 17ko 1/2025 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, onespina emateko urtarrilaren 19ko 12/1993 eta otsailaren 16ko 1/1999 foru dekretu arauemaileak aldatzeari.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko uztailaren 9a

*Lehendakaria*

*IRMA BASTERRA UGARRIZA*